

## B22

## Elexa santa debota bat da...

Poema honek eskuizkribuan maiz aurkitu dugun ahapaldi-egitura du: 9/10 -, 8 a. Hots, hamar (edo, noizean behin bederatzi) silabako lerro bakoiti libreak eta *-ia* errima duten zortzi silabako lerro bikoitiak konbinatzen dituzten distikoen segida da. Azken lau distikoetan, tinta, letra-moldea eta errima ere (*-ia*, *-ua*, *-oa-*) aldatu direnez, ematen du lerro horiek gero erantsiak direla. Gainera, poema osoak ere zirriborro-itxura du, zuzenketa asko egin baitira idazteko unean bertan ere.

Gaiari begiraturaz gero, bi zati bereizten dira argi eta garbi. Lehenengo zatian (1-12 bertso-lerroak) moja-komentu bat deskribatzen da, Narbaizako Barria monasterioa hain zuzen; bigarrenean (13-28 bertso-lerroak), San Joan bezpera egunean han egiten den erromeriaz dihardu.

Kontuan izan behar da Barriako monasterioa Lazarragaren inguru geografikoko komentu nagusia zela XVI. mendean.

<1198v> Elexa santa debota bat da  
monezterio<sup>1</sup> Barria;<sup>2</sup>  
religiosaz beteric dago  
barru aldeti guztia;

<sup>1</sup> *monezterio*: ‘monasterio’; gaztelaniaz ere, 1610era arte, gehiago aurkitzen da *monesterio* forma (14.000 inguru, *CORDEn*), *monasterio* baino (10.000 inguru, *CORDEn*). Landuccik ere *monesterio* dakar, hala gaztelaniaz nola euskaraz. Txistukariari dagokionez, eskuizkribuko testu nagusian, hemen bakarrik aurkitu dugu <z> *pro* <s> nahasketa. Alderantzizko nahasketa (<s> *pro* <z>) gutxitan aurkitu dugu: *desesperanças* (A1: 46) eta *esperanças* (A17: 31) testu nagusian, eta Martin Lopez Bikuñaren poemetan *negarres* (B8: 4) eta *bearres* (B8: 8), instrumentalaren markaren lekuan <-s> txistukari apikaria dutela. Estibaliz Sasiolakoaren poemez osaturiko eranskinean, ugari dira txistukarien nahasketak: *esin* (B27: 16, B27: 17), *es* (B27: 21), *estaguiçula* (B27: 25), *sure* (B28: 2), *çaytesque* (B28: 3), *sacusquedan* (B28: 4), *estaquistanean* (B29: 4), *estet* (B29: 7), *lastanarequin* (B30: 3), *equzten* (B30: 25), *gustiac* (B31: 3), *naguci* (B31: 4), *equci* (B31: 6), *lastan* (B33: 5), *flordeliçac* (B33: 13), *joci* (B33: 15), *Guipuscoaco* (B33: 18), *Gastelaco* (B33: 20), *gustiac* (B33: 35).

<sup>2</sup> *monezterio Barria*: Barriako (Narbaiza, Araba) lekaima zistertarren monasterioaz ari da. Izan ere, halaxe, *monesterio Barria* (edo, beste batzuetan, *monasterio Barria*) deitzen zitzaion monasterio horri XVI. mendeko dokumentuetan (1512an eta 1521ean, *CORDEn* bilduriko dokumentuen arabera). XII. mendearan amaieran edo XIII.aren hasieran sortu zen komentua (Gregorio IX.a Aita Sainduak 1232.ean eman eta 1235.ean berretsi zuen monasterioa bere babespean hartzen zuen bulda), baina ez dago garai horretako eraikinik zutik, oraingo eraikinik zaharrenak XV. mendekoak baitira. 1970eko hamarkadan utzi zuten moja zistertarek komentua eta Oionera joan ziren.

San Bernardoren abitoa,	5
oial balça ta çuria. <sup>3</sup>	
Eguiten dave utra santaro <sup>4</sup>	
barruan penitencia; <sup>5</sup>	
Jaun Cerucoac emunic dave	
particulare gracia: <sup>6</sup>	10
eurac daquie curaetan	
min oria <sup>7</sup> ta gorria. <sup>8</sup>	
Jandoneanez Bautistea, <sup>9</sup>	

<sup>3</sup> *San Bernardoren abitoa, / oial balça ta çuria*: *Moniales Ordinis Cistercensium* ordenako lekaiameei “bernardak” ere deitzen zaie. Abitu zuri-beltza erabili dute ordenaren sortzetik gaur arte: tunika eta buruko zuriak, eskapulario eta belo beltzak. Hona hemen XVIII. mendeko irudi bat: [http://upload.wikimedia.org/wikipedia/commons/5/55/Religieuse\\_de\\_1%27abbaye\\_de\\_Tart.png](http://upload.wikimedia.org/wikipedia/commons/5/55/Religieuse_de_1%27abbaye_de_Tart.png).

<sup>4</sup> *santaro*: ‘santuki’; *santuro* forma Larramendiren hiztegian agertu zen lehenbizikoz; beste hau, *santaro*, gaztelaniazko *santa* femeninoaren gainean eraikia dela dirudi.

<sup>5</sup> *penitencia*: Artikulurik gabe ageri da *penitentzia* hitza hemen, seguru aski esapide finkatu baten parte delako. Euskarazko testuan beste behin erabiltzen da esapide bera, *penitentzia egin*, artikulurik gabe berriz ere (A26: 128). Cf. gainera, gaztelaniazko testuko, *hagamos penitencia los culpados* (A18: 83), artikulurik gabea hau ere. Bestalde, objektua artikulurik gabe daramaten beste esapideekin multzokatu daiteke *penitentzia egin* ere: *lizentzia eskatu* (AL: 1146r bitan, AL: 1147r), *erromeria egin* (B22: 22).

<sup>6</sup> *particulare gracia*: Izenondoa aurretik agertzea gaztelaniazko esamoldearen eragina da, ziur aski. *particulare*: ‘partikular, berezi’; gaztelaniaz, *CORDEn*, ez dugu aurkitu *-e* bokalean amaitzen den formarik. Gogoratu behar da *naturale* (AL: 1147v), *arbole* (AL: 1153r), *originalea* (B5: 96) eta *rosale* (B16: 87) ere badirela Lazarragarenean, baina baita *naturala* (B16: 78) ere.

<sup>7</sup> *min oria*: *OEH*ren arabera, *min-horia* erdaraz *amarillez* (edo *ictericia*) deitzen den gaixotasuna bide da, horrela bildu baitzuen Larramendiren *Hiztegi hirukoitzak*: “Tericia, *miñoria*”. Cf. *DAut*, s.v. *amarillez*: “El color del rostro, que por melancolía u otra enfermedad, susto o espanto, passa a ser amarillo y pálido”. *Aitac ezcondu ezpanagui...* poemaren ere *min oria* agertu da (A19: 31), eta han *chlorosis* edo *morbus virgineus* adierazten duela ulertu dugu. Beste lekaiame beneditar batzuen komentuan ere (Santa María la Real, Tórtoles de Esgueva, Burgos) sendatzen zuten *min-horia* edo *ikterizia*: “En la Ribera, para curar el mal de amarillo acudían al monasterio de Santa María la Real de Tórtoles, de que ya hemos hablado a propósito de las brujas: “cuando alguien se ponía un poco amarillo, enseguida le decían: -Ya puedes ir a Tórtoles. A veces se lo decían, en broma, a los que se ponían colorados de tanto beber”. Las monjas les rezaban unas oraciones, les bendecían y luego ellos, en su pueblo, tenían que hacer un novenario. Por cierto, para curar este mal de ictericia había otro tipo de remedios, menos efectivos, como [...]” (Martín Criado 1999).

<sup>8</sup> *gorria*: *Mingorria*, *OEH*ren arabera, ‘elgorria’ (Azkue) nahiz ‘aterizia’ (Larramendi) izan liteke.

<sup>9</sup> *Jandoneanez Bautistea*: ‘San Joan Bateatzailea’; *Jandoneanez* da izena forma absolutiboan; hala agertzen da eskuizkribuko hiru lekutan: *Jandoneanez vezpera* (A7: 2), *Jandoneanez calteric* (A28: 56), *Jandoneanez Bautistea* (B22: 13). Azkoitian ere bada *Jandonianiz* toponimoa.

Barriako monasterioaren eta San Joanen artean erlazio bakarra aurkitu dugu: abadesen hilerrria dago monasterioko ekialdeko alboan, eta hor dira komentuan abadesa izandakoen hilobiak; hilerrira sartzeko, arku bat dago, zutabe jonikoen gainean, eta hor zizelkaturik dago San Joan Bateatzailearen irudia, San Bernardorenarekin eta zazpi gaztelu dituen armariarekin batera.

Ceruan santu arguia:	
mundu guztian celebracen da <sup>10</sup>	15
jaun onen eguçaria; <sup>11</sup>	
tenporea da eбилteco	
acceptoa ta garbia. <sup>12</sup>	
Bezpera artan gentez oy da <sup>13</sup>	
ayuntamiento <sup>14</sup> andia:	20
Galay galantoc ara doaz	
eguiten erromeria, <sup>15</sup>	
dança-corrúa lecu <sup>16</sup> ascotaic <sup>17</sup>	
ondo acompañadua. <sup>18</sup>	

<sup>10</sup> *mundu guztian celebracen da*: Ondo dakigu izan ere halaxe zela XVI. mendean. Hona hemen antz-antzeko erreferentzia bat, garaitsu berekoa (*apud CORDE*): “El día de San Juan venido, fiesta que todas las naciones del mundo celebran, todos los caballeros de Granada se pusieron galanes” (Ginés Pérez de Hita, 1595, *Guerras civiles de Granada*).

<sup>11</sup> *eguçaria*: ‘jai-eguna’; cf. Lcc “fiesta de guardar, *eguçari euchayteco*”. Betolatzarenean eta *Viva Jesusen* ere bada: “*Eguzariak gordetea*. Bet 10. *Mesa osoa enzuten domeeka eta eguzerietan*. VJ 13”.

<sup>12</sup> *acceptoa ta garbia*: ‘txukun eta garbi’. Balio adberbiala dute izen-sintagma artikuludun hauek. Antzeko balioa aurkitu dezakegu eskuizkribuko beste pasarte batean: *Gaztea sartu ninçan, sentiçaca / andi arçaita neben engañua* (B15: 49-50). Egun ekialdeko hizkera batzuetako ezaugarri da artikuludun sintagma zenbaiten balio adberbiala; cf. *zuzen-zuzena* ‘zuzen-zuzen’, *bizi-bizia* ‘bizi-bizirik’.

*acceptoa*: ‘dotorea’; cf. *DAut*, s.v. *acepto*: “Agradable, bien recibido y admitido, de toda estimación, gusto y aprecio”. Gogorarazi behar da leku askotako ohitura dela San Joan egunean jantzea lehenbizikoz arropa berriak.

<sup>13</sup> *oy da*: ‘izan ohi da’; Lazarragaren eskuizkribuan, hamabi aldiz ulertu dugu *oy / oi* partikulak ‘ohi’ adierazten duela: *egon oi da* (A14: 46), *oy ninduan penadu* (B12: 4), *Gabaz-egunaz oy nituan / aren atead rondadu* (B12: 5-6), *nic jagui bear oy dot oçac ilic* (B15: 48) eta *Bezpera artan gentez oy da / ayuntamiento andia* (B22: 19-20), *Eleiçara juen oy naiç, / eguin oy det becatu* (B27: 1-2), *Avemaria asi baice, / ecin oy det notatu* (B27: 3-4), *ofrendara dianean / ondo oy det miratu* (B27: 9-10), *Sperançaç bici oy n[aiç] / erri oneçaç atean; / sperancea galdu oy det / errira natorrenean* (B28: 7-10).

<sup>14</sup> *ayuntamiento*: ‘biltze, bilkura’.

<sup>15</sup> *erromeria*: Ez dakigu Barrian erromeria berezia egiten ote zen San Joan bezperan. Barriako erromeria oso ezaguna da, eta dirudienez oso zaharra, baina ez San Joan bezperan, San Bernardo egunean baino, abuztuaren 20an. Inguruan (hamabi kilometrotara), gaur egun, Albeizko erromeria da ezaguna San Joan bezperan (Amamioko San Joan ermitaren inguruan), eta, jakina, Agurainekoa (bederatzi kilometrotara), San Joan Bateatzailearen parrokia baitago Agurainen. Ohartzekoa da, bestalde, artikulurik gabe ageri dela *erromeria* hitza eskuizkribuko agerraldi bakar honetan; horren arrazoa esapide batean txertatua egotea izan liteke, *erromeria egin* esapidean; cf. *licencia escatu* (AL: 1146r bitan, AL: 1147r).

<sup>16</sup> *lecu*: ‘herrixka’; hemen *lecu* ‘herrixka’ da: cf. Lcc “aldea, *lequa, aldea*”. Eskuizkribuan gutxienez bederatzi aldiz aurkitu dugu *lecu* esanahi horrekin (AL: 1145v, A7: 61, A17: 52, A23: 69, A23: 75, A23: 82, A23: 84, B16: 122, B22: 23). Beste askotan, jakina, ‘toki’ esanahiarekin.

<sup>17</sup> *ascotaic*: ‘askotarik, askotatik’; hau da eskuizkribuan aurkitu dugun *-r-* gabeko prosekutibo bakarra.

Dama galantac ara doaça<sup>19</sup>

25

galantic<sup>20</sup> adornaduac;

gustietati florea dira

orduan Axpurucoac.<sup>21</sup>

## OHAR PALEOGRAFIKOAK:

**izenb.** Poema osoa eskuineko zutabearen idatzita dago. Lehenengo 20 bertso-lerroak tinta beltz-beltzez idatzi dira, eta ondokoak tinta argiagozeta beste idatz-molde batez. Testu osoan egin da zuzenketa ugari, hala idaztean nola geroago. **8** barruan penitencia] *barru guzti-* edo erantsi da lerroartean, eta gero tatxatu egin da. Ondoren ere, beste bi lerro idatzi eta tatxatu dira: *lindaac dira parebaga / andia dave g-*. **10** *particulare gracia*] *gracia ultra andia* ezabatu ondoren, lerroartean erantsita dago. Bestalde, *utra*-ren gainean *g-z* hasten den beste hitz bat idatzi eta tatxatu da. **12** oria] *min* idatzi eta tatxatu da aurrean. **19** *gentez*] *bea oy* edo ezabatu ondoren, lerroartean erantsita dago. **21** *galantoc*] *-c* tinta beltzagoz erantsia. **22** *erromeria*] *erro-* tinta beltzagoz zuzendua dago, agian *rro-* edo *ro-*, hots, epentesirik gabeko formaren gainean. **23** *corrua*] lerroartean, tinta beltzagoz. Lerroan *cantua*, ezabatu gabe. **23-24** *lecu ascotaic ondo acompañadua*] *lecu ascotan orduan* idatzi du lehenengo tintak, eta tinta beltzagoz erantsi da bestea. Zutabearen ezkerrean, *yuntancen* idatzi du lehenengo tintak, baina ez dakigu non txertatu behar den. **25** *galantac*] *-c* tinta beltzagoz erantsia, baina ziur aski soilik azpikoa argitzearren. || ara doaça] letra batzuk (*ara*, bukaerako *-a* eta <ç>aren azpiko diakritikoa) beltzagoz gaineratik idatzi dira, baina ziur aski soilik azpikoa argitzearren. **26** *galantic*] esk. *galanti*. *ga-* tinta beltzagoz gaineratik idatzia, agian soilik azpikoa argitzearren. || *adornaduac*] *-uac* tinta beltzagoz gaineratik idatzia, agian soilik azpikoa argitzearren. **27** *gustietati*] *-e-* tinta beltzagoz erantsia. || *florea*] *folrea* idatzi du lehenengo tintak; *-lo-* eta *-ea* tinta beltzagoz idatzi dira gaineratik. || *dira*] tinta beltzagoz idatzia, beste zerbaiten gaineratik. **28** *Axpurucoac*] *-urucoac* tinta beltzagoz gaineratik idatzia, baina ziur aski soilik azpikoa argitzearren.

<sup>18</sup> *acompañadua*: ‘musikaz lagundua’; cf. *DAut*, s.v. *acompañar*: “En la música es tocar el instrumento para llamar y seguir la voz que canta, imitando o previniendo lo que el cantor ha de decir, o repitiendo lo que ha cantado” edo “También en la música es cantar juntamente con otros, siguiendo el mismo tono, aunque las notas sean diferentes”.

<sup>19</sup> *doaça*: Eskuizkribuan lau aldiz aurkitu dugu *doaz* (A17: 73, A23: 53, B22: 21; *doacen* A26: 92) eta behin *doaça*.

<sup>20</sup> *galantic*: Eskuizkribuan agertzen den *galanti* zuzentzeko, bi aukera daude: *galanto* edo *galantic*. Lehenengoa (*galanto*) eskuizkribuan behin baino gehiagotan agertzen da, baina paleografikoki zaila da *-i / -o* ordezkatzeari. Bigarrena (*galanti / galantic*) paleografikoki ulergarria da; eskuizkribuan, bestalde, sarri erabiltzen da *-(r)ik* aditzondoetan (*bacochic, tristeric, gaxoric...*), hitz honekin beste adibiderik ez badugu ere.

<sup>21</sup> *Axpurucoac*: Axpuru da, hain zuzen, Barriako monasteriotik hurren dagoen herria (kilometro batera).

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2012 [c. 1602], “B22 – Elexa santa debota bat da...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (2.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/) dago